

NOLA ESKURATU ZURE INDUSTRIAKO AKREDITAZIOA?

Urrats hauek jarraitu Donostia Zinemaldiko zure akreditazioa eskatu, bete eta jasotzeko.

1



ESKATU ZURE AKREDITAZIOA POSTA ELEKTRONIKOZ

Akreditazio berria eskatu nahiz berri nahi baduzu, dagokion postara idatzi behar duzu eta eskatutako dokumentazioa erantsi.

 invitados@sansebastianfestival.com



AURKEZTU BEHARREKO INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA

- Enpresaren eskaera, zure lanpostua eta eginkizunak zehazten dituena.
- Enpresaren informazio-txostena eta akreditatu beharreko pertsonak Zinemaldira joateko dituen beharrak edo interesak (erosten edo banatzen dituen film-motak, kontaktatu nahi dituen konpainiak...).

Informazio eta baldintza guztiak hemen kontsultatu ditzakezu: sansebastianfestival.com/akreditazioak/1/40/eu

2



ESKAERAREN BERRIKUSPENA

Zinemaldiak dokumentazioa berrikusiko du eta, onartua izanez gero, mezu elektronikoko bat jasoko duzu zure akreditazio-formulariora sartzeko aukerarekin uztailetik aurrera.

Kasu horretan, aktibatuta izango duzu zure akreditazioa [Nire Zinemaldian](#). Webguneko eremu pribatu honetara saioa hasi ondoren sartu zaitezke.

Onartzen ez bada, posta elektronikoz jakinaraziko dizugu.

3



AKREDITAZIO-FORMULARIOA BETE

[Nire Zinemaldia](#) eremuan sartu eta **formularioa bete eta bidali** zure datu guztiakin.

Ordaindu beharreko kuota formularioa bete eta bidaltzen duzun dataren arabera izango da.

Early Bird - Uztaila (Uztailaren 1etik 31ra)		Abuztua (Abuztuaren 1etik 31ra)		Iraila* (Irailaren 1etik aurrera)	
Presentziala	Online	Presentziala	Online	Presentziala	Online
130 €	60 €	150 €	70 €	180 €	80 €

* Ez da akreditazioaren kudeaketa bermatzen, epea kanpo dagoelako. Salbuespen gisa eta eskaeraren arrazoiaren arabera, akreditazio-eskaerei erantzun zuzena irailaren 1etik eta Zinemaldiaren azken eguna arte.

4



KUOTAREN ORDAINKETA EGIN

Zure akreditazioaren formularioa bidaltzean, Zinemaldiaren ordainketa-pasabidean ordaindu beharko duzu akreditazioa.

5



BAIEZTAPENA

Formularioa bete eta ordainketa egin ondoren, berrespen-mezu automatikoak jasoko dituzu.

Zinemaldia hasi baino egun batzuk lehenago mezu bat jasoko duzu Donostian zure akreditazioa erretiratzeko beharko duzun informazio guztiarekin.

6



AKREDITAZIOA JASOTZEA

Zinemaldira iristen zarenean, Kursaal Elkargunean zure akreditazioa jaso ahal izango duzu baieztapen-mezuan jasotako argibideei jarraituz.